

NAFARROAKO GOBERNUA KINKAN

Ogasunean izandako ustelkeria kasuaren salaketak kolokan jarri du Yolanda Barcinaren gobernua. Aldaketaren atarian, zabaldu diren aukerak aztertu dituzte oposizioako bi parlamentarik.



**Patxi
Leuza**

GEROA BAI-KO
LEGE BILTZARKIDEA

Bertigoa

OTSAILAREN 14AN idatzi dut artikulua. Batzuk ospatzen dute San Valentin, nik ez. Otsailaren bukaeran, agian santutegia aldatu beharko dugu, eta egun horri San Kikil deitu.

Bitxia da, baina PSN ez da existitzen, eta baieztapen arrunt hori azken 30 urteotako ekintzek bermatzen dute. Ez da gauza bera gertatzen Alderdi Sozialistako federazio guztietan, PSN eta PSAn adibidez. Horiak badute berariazko boterea; PSN berriz, PSO Eren adar bat baino ez da, horrek esan nahi duen guztiarekin. Hemen ez da ezer erabakitzen hierarkia gorenak baimendu gabe, eta baimena emango duena Madrilén dago, nola ez!

Hori esanda, orain Nafarroako politikaren egoera larriari helduko diogu, zeinak hain aztoratuta, ilusionatuta eta izututa gaizkan. PSNk hordago handira jo dio Barcinari (ez daukat hain garbi UPNri jo ote dion hordagoa), eta egia, sozialistak lokaztutako baratzean sartu dira; hain lohiz betea, epeak noiz bukatzen diren ere ez dute argi. Bat-bateko erreakzioa? Ez dut uste. Egoera hau baliatu nahian dabilta? Seguruenik bai. Hauteskundeak aurreratuz gero, sozialistek lidergoarekin duten arazo handiaren zati bat konponduko lukete hauteskunde primarioak (denborarik ez dagoelako) saihestuta.

90eko hamarkadako *Thelma & Louise* filmarekin gogoratzen al zarete? Aurrera begira egin zuten ihes eta zoritxarreko amaiera zeukan pelikula. Aldeak alde, protagonistak heroi xarmagarriak baitziren, hauxe da Barcinaren gidoian aurreikusten dudan amaiera: *Yolanda & Louise*.

Barcinaren gobernua kinka larrian dago, eragile eta hedabide guztiek berre-

tsi dute, eta ez luke bost minutuz ere iraungo ez balitz ia denaz susmagarria den pertsona mantentzeko beharrezko diren interes taktikoengatik.

Ulerterrazak ez diren kontuak dabilta borrokan denda atzean: Alde batetik, botereari desesperatuki eusten dio Barcinak, politikoki bereak egin duela oso gertu sumatu baitu. Eta ondo jakina da politikan atzeko atetik atera denak ez duela urrezko alfonbrarik aurkituko aurrerantzean. Bestetik, UPN marka ikaragarri azkar ari da hondatzen eta horrek pentsarazten du atzetik hariak mugitzen dituztenak urduri jartzen ari direla. Oso urduri.

Nafarroako Ogasuneko zuzendari ohiaren adierazpenek zalantzarako tartarik ez dute uzten. Burugabe bat baino (ez dut uste Idoia Nieves hala denik) ez litzateke sokaren alde batetik bestera joango sarerik gabe. Ez dakit zergatik egin duen, baina berriro diot, nire ustez adierazpenak egiazkoak dira.

Nire iritziz, Barcinaren asmoz gain, UPNk ez du onartuko beste 15 hilabetez higatzen segitzea, ondorioak izango bailituzke: ikerketa batzordeak ondorioztatuko duenaz gain, eta epe motzertainera susperraldi ekonomikorik aurreikusten ez dela, beti saldu duen kudeatzaile onaren irudi mitifikatua eroriko litzateke.

Oposizioan dugun lan gaitza aipatuz bukatuko dut. Lehendakariak berak ez badu erabakitzen hauteskundeak aurreratzea eta zentsura mozio baten aurrean bagaude guztiok neurria emango dugula espero dut. Ez naiz UPNren azpizkoez fio eta mozioaren alde bozkatuko nuke, oinetako behatzen bidez sudurra estaliz. ■

